

ARANERREKA

Lotan diruditen ur bareak

Argazkiak: LETXEZARRAGA



7,6
Km

4 h

Wikiloc-en
topatuko duzu
ibilaldi hau

GnatKonekta



Sarbidea

Mendaroko Garagartza auzoaren gunetik, Kilimon hiribidearen amaieratik abiatuta, eraikinak amaitzen diren tokian.

Zailtasuna eta errekerimenduak

Ibilbide honek 7,6 km ditu guztira, eta ez du nabarmentzeko moduko zailtasunik. Halaber, ez du eskatzen ekipamendu berezirik, ibiltzeko oinetako eta arropa egokiak baino ez. Komeni da ura eta elikagai arinen bat eramatea. Era berean,

hartu ahal dela telefono mugikorra aldean, ezer gertatuko balitz ere.

Deskribapen laburra

Menderako udal mugartean igarotzen da ibilbide osoa, Aranerreka haraneko sakangune karstikoan zehar, ur ibilgu etenen



1 de 6

Gnaturaldia
konekta

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumen eta Oria
Hidraulikortasun Departamentua



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

ARANERREKA

parean, eta Kilimoi, Polpol (Errementari) eta Ebro iturburu ohiz kanpokoan –eta batzuetan neurriz gainekoan– alboan. Erabilera publikoko bide bat da, eta asfaltatutako tartekak, hormigoizkoak eta hartxintzarrez estaliak ditu.

Ibarrean han-hemenka ageri diren Erdi Aroko eraikinen eta baserri urtetsuen alboan ibiliko gara, buelta guztian belardiak eta kultibo soroak ez ezik artadiak eta pinudiak ere miretsiz. Paraje ikusgarriez gozatuko dugu, historiaz beteriko ingurumariet, baita lurpean ezkutaturik dagoen errealitate enigmatikoaz ere: bazez eta soseguz beteriko tokiak, gizakiaren eta naturaren artean tradizionalki izandako oreka dokumentatu besterik egiten ez dutenak.

Ibilbidearen eta bertan topatzen diren elementu naturalen eta kulturalen deskribapena

Oharra: WP hizkiekin (ingeleseko waypoint-etik eratorriak) adierazten dira ibilbideko gako-puntuak, hala bidegurutze bat dagoelako, nola intereseko kokagunea delako. Eskuineko zutabearen jaso dira kokaleku horien argazkiak eta azalpenak.

Kilimon hiribidearen amaieratik abiatuko gara (WP 1); ezkerretan, Gabiola eta Gabiolatxiki etxeak edukiko ditugu, lehendabizikoaren

izen bereko Erdi Aroko burdinolaren hondarrak, eta Aranerreka haranean sartzen den errepideari helduko diogu. Aurreraxeago joanda, ezkerretan garai bateko Lasalde dorretxearen eta hari atxikitako errotaren paretik igaroko gara; garai batean, beste burdinola hidrauliko bat egon zen toki horretan.

Handik berehalaxe, Lasaldeberri etxearen ertzean (WP 2), eskuinetara igotzen den errepidea albo batera utzita, ezkerretarantz jarraitzen

Lasalde dorretxea da Mendaroko Erdi Aroko eraikin ordezkarrienetako bat. Bere horma sendoetan, oraindik ere mende luzeetan iraun duten elementuak ageri dira, hala nola leihoak, gezi leihoak eta arku zorrotzak dituzten sarbideak.

duenari helduko diogu. Segituan, Mendaroko edateko ura tratatzeko estaziotik igaroko gara, zeinak Mendaro, Deba, Mutriku eta Elgoibar hornitzen baititu urez 1991tik, haran honetako lurpetik igarotzen diren ur baliabideak aprobetxatuz. Arazketa plantaren instalazioak igaro ondoren, 70 m eskasera eta presa baten parean, ibilguaren beste aldetik eta landareek erdi ezkutaturik, Kilimoi iturburu sonatuaren sorrera irekitzen da.

Waypoint (WP)



1. Hasiera



2. Bidegurutzean, ezkerretara



3. Polpol iturburua



Sakan hau arrezife kareharrien artean irekia da, orain 120 milioi urte inguru eremu hau estaltzen zuen koral kolonien metaketa masiboen fruitu. Hala, sistema hidrogeologiko bitxia erakusten du.

Goi ibilguan hainbat errekarekin horniturik dago. Erdi paretik aurrera, urak barreneko hutsarte eta arrailetan sartzen dira, eta uda partean desagertu ere desagertzen dira ibilguaren beheko aldera arte. Nolanahi ere, euri boladaren bat izan orduko, modu harrigarrian irteten da ibilgua, harik eta gainez egin arte; ertzetan irekitako hiru sorburuetatik ekarpen izugarriak etortzen dira modu etenean (12 orduz ere iraun ohi dute), eta horrek aspaldiko garaietatik nolabaiteko tankera enigmatikoa ematen dio inguru hori, are sorginkeria itxura.



ARANERREKA

Aurrerago, Irabaneta etxea eta Errementari baserria igaroko ditugu. Martxa horretan goazela, harana zulatzen duten zundaketa baten etxola pasatu eta gutxira (WP 3), daramagun bidearen beste aldeko erreka ertzean eta landareek erdi ezkutaturik, Polpol izenez ezagutzen den sorlekua topatuko dugu. Horixe da, hain justu, Kilimoi haraneko edo Aranerreka lurpeko sistema hidrikoaren beste fenomenoetako bat.

Paraje horretatik aurrera, harana zabaltu egiten da, eta uraldiak mendeetan zehar sedimentatu dituzten meandro zabalak agertzen dira. Inguruetan ageri diren baserriek oso aspalditik aprobetxatu izan dituzte ordoki horiek, dela segarako larre gisa, baina baita kultiborako soro gisa ere.

Atentzio berezia ematen du ibilbide osoan haranaren hondoa ageri den berde bigunaren eta haranaren hegala inguratzen dituzten artadietako tonalitate ilunagoaren


Sorburu hori putzu moduko bat da, harlangaitz horma lehorrez eraikitako murruek eta gangaerdi baten gainean muntaturik. Etengabe egoten da putzua bertan: uda garaian, Kilimoi erreka ibilgu lehorren azpitik geratzen da, eta, euri ugari egiten duenean, berriz, txertaturik dagoen lubakia gaingitu eta Aranerreka ibilgua elikatzen dute modu iskanbilatsuan.

Drinatze hidriko hori, Kilimoi bera bezalaxe, etena izan zen: batzuetan gainezka eta beste batzuetan, berriz, lehor, inolako patroirik gabe, izan udan edo neguan, lehorte garaietan edo egundoko euriteetan, harik eta lurpeko akuiferoak zulatu ziren arte.

Waypoint (WP)



4. Amaiera. Itzuli hasierako puntura, bide bera erabiliz



Kilimoi haraneko kareharrizko hegaldak malkartsuetan, lur lodiera txikiarekin, Kantaurialdeko artadi masa garrantzitsu bat ageri da. Batez ere arteak dira nagusi, tartean-tartean elorri zuria, haritzak, astigarra, gurbeondoak, hurritzak, erramuak eta beste hainbat espezie ere ageri izaten dira, endalar liana arantzatsuz nahas-mahas. Eredu horiek babes segurua dira basurde, orkatz, azeri eta azkonarrentzat, beste hainbat basa ugaztunen artean, baina baita hegazti txikientzat eta neurri handiagoko beste ehiztari batzuentzat ere, horien artean, belatz gorria, hontza eta mirua.

Garaiera txikikoak eta gain obalatuarekin, zurbeltz egurra dentsitate handikoa eta gogorra da, primerakoa egur ikatza egiteko eta erregai gisa baliatzeko; hori dela eta, mende luzeetan kontrolik gabe ustiatu dute arraseko mozketan, enborraren oinarria utziz eta, hala, gaur egungo arterik gehienak zurbeltzek berriro emaniko kimuak dira.

artean. Hosto iraunkorreko artadien eta gainerako arbolaren kolorearen artean sortzen den kontraste horrek xarma oso berezia ematen dio haranari, ekologiaren zein paisaiaren aldetik.

Fenomeno karstiko horietaz gainera, ibilbide osoan zehar hainbat leize irekitzen dira: haietako asko bizileku izaniko aztarnategi arkeologikoekin eta baten bat horma arteekin ere bai. Ehorzketarako baliatutako beste barrunbe batzuk ere badaude. Multzo horrek erakusten du osin hauetan gutxienez orain 20.000 urtetik hona dela gizakien presentzia.

ikusiko dugu, hegaldaren ezpandan modu sendoa txertaturik.

400 metro inguru aurrera egin, eta Lizarrola baserri ezkutua topatuko dugu, haraneko azkenekoa, sarbidearen parean harraska baten prototipo originalarekin.

Ataka baten parera iritsi orduko, bide hori hartxintzar trinkozkoa bihurtzen da, eta ibaiaren bide lehortuaren albotik igarotzen da ia beti, baratza saiatuen eta larrerako zelai zainduen artean, azken horiek harri lehorrez eginiko murrak ilara ikusgarriekin eutsirik.



Aurreraxeago joanda, eskuinetan Kortaberri baserrira ematen duen bidera joateko bidegurutzea igaro bezain pronto, goazen aldetik bertatik eta Aitzerreka errekaaren parean, Ebroko Zuloa izenez ezagutzen den osina irekitzen da, lurraren arrasean; handik beste iturburu emaritsu bat igarotzen da eurite handiak direnean.

Ibilbideari jarraituz, berehalaxe eta bankuz hornituriko zabalgunen baten pare-parean, produkzio eteneko garai bateko kare labe baten aurria



ARANERREKA

Karea egiteko, apropos prestatutako labeetan egosten zuten kareharria. Teknika hori oso antzinakoa da, eta indarrean egon da XX. mendearen lehen herenean sartu bitarte guztian.

Kare labeek estalkirik gabeko barrika forma izaten zuten, eta aurrealdean aho bat edukitzen zuten erregaia bertatik sartzeko. Ezpondetan txertaturik eraikitzen zituzten, aurrez hutsartea hustu ondoren, eta, gero, lehorrean landutako hondar eta arbel harriz estaltzen zituzten barrutik hormak -hau da, argamasarik gabe-. Barrenean, zulo bat ipintzen zuten, hautsontzi modura, ahoaren petik kanpoaldearekin konektaturik.

Egostera bideratzen zituzten kareharriak bata bestearen gainean ipintzen ziren barruan, kupula faltsu bat eratuz, zeinak kargaren gainerakoari eusten baitzion behetik gora. Barnealdeko hutsartea sastraka lehorrez betetzen zen, eta, su eman ostean, hiruzpalau egunez piztuta egoten zen, aldian-aldian sasiz eta adarrez elikaturik. 800 eta 1.000 graduko tenperaturak ere lortzen zituzten. Eskuratutako harri egosiak, deshidratatu ondoren kare bizi bilakaturik eta bolumen txikixeagoarekin, birrindu egiten ziren eta, erabileraren arabera, uretan sartuta «itzaltzen» zituzten.

Antzina-antzinatik erabili izan da karea aglomeratzaile gisa morteroak egiteko, XX. mendearen hasierara arte. Baina makina bat bestelako erabilera ere izan du, etxean, nekazaritzan, antiseptiko gisa, izurriteen aurka, gaixotasun infekziosoei aurka egiteko eta beste hainbat erabileratarako.

Bide horretan goazela, eskuinetan Agiñetagañako hegala malkartsuek babesturik eta kontrako aldean Aitzbeltz dugula, haran aldapatsu honen buruan sartuko gara.



ARANERREKA

Leizeak eta osinak era guztietako legendetako pertsonaia mitologikoen bizileku izan direla dioen kimera ezagunak badu hemen ispilurik: bi barrunbe ageri dira irekita Aitzbeltz hegalekin eta zakarreen. Haietako batek leize itxura du, eta, diotenez, Basajaunen bizilekua ez ezik (basoetan bizi zen giza itxurako izaki erraldoi eta iletsua) jentilena ere bazen (mendietan bizi ziren izaki mitologikoak, gizakiaz gaindiko itxura eta indarra zutenak). Besteak, berriz, osin itxura du, eta, haren sakonera dela eta, infernura ematen omen zuen: diotenez, Txakurraundi izeneko txakur izugarri eta basati batek zaintzen zuen haren ahoa. Mito horiek ahoz aho transmitituak dira aspaldiko garaietatik, eta haranari nolabaiteko sorginkeria kutsua ematen diote, eta mende luzez sugestionatu dituzte inguruotako biztanleak ere.



Ibaiaren paretik aldendu gabe, urteetan zehar basoari irabazitako eremu txikien artean igarotzen da bidea, konifera landaketa eta garo leku itxi-itxiaren artean. Halaxe goazela, txabola iradokitzaile bat ikusiko dugu, eta kare labe

ugariren hondarrak ikusiko ditugu ezpondetan txertaturik.

Berehalaxe, trazatuan aurrera goazela Kataolatzaerreka osinaren paisaia ikusgarri iritsiko gara, Atxurigaña eta Urnobieta mendien

arteak, eta, aurreraxeago, topatzen dugun lehen bidegurutzean (WP 4) osatuko dugu ibilbidea.

Puntu horretan, buelta guztian ditugun ikuspegiak edertasunarekin txunditurik eta erabateko isiltasunean murgilduta –gure presentziaren berri ematen duen mikaren baten karranke bakarrak hautsia–, buelta hartu eta etorri garen bidetik barrena joango gara atzera abiapuntura.



Gogoratu mendia, basoa eta hondartzazaindu behar dituzula, errespetatu animalia eta landareak eta eraman sortutako zaborra etxera bueltan.



gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena/gnaturaldia/konekta

6 de 6

Gnaturaldia
konekta

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumena eta Oribi
Hidraulikotasun Departamentua



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro